

SECCION AMENA.

ESA.... MIÑA.

Medikutako zuben
 Jillek esamiña
 beldurrarekiñ ere
 bai tripako miña.
 Zuk izango zenduben
 nola dan jakiña
 trantze gogor abetan
 arkitu baziña.
 Tribunalen aurrean
 agertu zanian
 estuasuna franko
 zeukan barrenian.
 Zenbat ezur ditugun
 biatz bakoitzian
 galdea egin zioten
 aurren aurrenian.
 Ibilli zan mutilla
 zerbait nairik esan

jo gora ta jo bera
 bañan arrocketan.
 Nun naitik zerizkala
 izerdi tantuak
 begiak oker, dar-dar
 anak ta besuak.
 Ikusirikan ori
 tribunalekuak
 kupiturik chandatu
 zizkan leziyuak.
 —¿Zer aginduko dezu
 badago estutua
 norbait sukarrarekin
 pulmoniyaz jua?—
 Pozez pentsaturikan
 gauza segurua
 erantzun zuben azkar
 —Azken-unziyua.

MARCELINO SOROA.

ANTON ETA JOSEPA.
 SAN JOSÉ EGUNEAN.

ANTON.—¿Zér da usai au, dama,
 Onen gozóa?
 JOSEPA.—Da lore-sortacho bat
 Gaur goizekoa,
 San Josek Zerutikan
 Botatakoa.
 Agerzadazu, Anton
 Zure gustoa
 Esanaz zeñdan lore
 Ederragoa,

ANTON.- Neretzat ederrena
 Da biolchoa
 Umill-umill chokoan
 Gordetakoa;
 Ala zuetan ere,
 Dama gaiñoa,
 Ez nuke nai neretzat
 Puztu arroa,
 Baizik ondo birtutez
 Jantzitakoa.

ANTON BAT.